

Hizkuntzen ebaluaziorako interes-taldea Estatuan GIELEren III. Jardunaldia. Balioztatze- prozesuak: erronkak eta aukerak



15.Aza - 16.Aza

Kod. L08-19

Edizioa
2019

Jadueramota
Kongresua

Data
15.Aza - 16.Aza

Kokalekua
Miramar Jauregia

Hizkuntzak
Gaztelera

Balio akademikoa
20 ordu

Web
<https://giele.webs.upv.es/>



ZUZENDARITZA

Iñaki Villoslada Fernández, HABE

Neus Figueras Casanovas

Antolakuntza Batzordea

Fundación **BBVA**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Azalpena

Hizkuntzen ebaluazioan ari diren estatuko profesionalek elkartu eta bateratze-lana egiteko aukera izatea da asmoa. Jardunaldiaren aurretik, azaroaren 15ean, arratsaldez, zenbait lantegi praktiko egingo ditugu.

Helburuak

GIELEren hirugarren jardunaldian pausoak emango ditugu estatu-mailako hizkuntza ebaluazioaren eremuko dibulgazioan. Gainera, jardunaldi honetan erraztuko dugu estatuko hizkuntza ebaluazioko profesionalen arteko kontaktua eta kolaborazioa sustatuko dugu zein ideia-trukea. Espainiako hizkuntza ebaluazioaren eremuan lan egiten duten erakunde desberdinen arteko lankidetzak bultzatuko dugu bertaratutako parte-hartzaileen artean, eta praktika onak ezagutuko ditugu lehen eskutik: hizkuntza azterketak lantzean kalitatea sustatzeko ekimenak azalduko dizkigute, eta estatu eta erkidego mailarako proiektuak eta beren inpaktua aztertuko ditugu.

Hirugarren jardunaldi honen helburu nagusia hizkuntzen ezagueraren egiaztapenerako balidatze-prozesuak maila teorikoan eta praktikan aztertzea eta kontrastatzea izango da, estatu mailako esperientzia desberdinak ezagutuz.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak

HADE

Zuzendariak



Iñaki Villoslada Fernández

HABE

(Donostia/San Sebastián)

Iñaki Villoslada, Donostian jaioa, Euskal Filologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean eta Zuzenbidean UNEDen. Euskara-irakasle Donostiako Euskaltegietan 1982tik 1990era bitartean, IVAPeko teknikaria administrazioko hizkuntza-eskakizunak ebaluatzeko bederatzi urtean gero, eta hemezortzian Osakidetzako euskara teknikaria, Erakunde Zentralean lehenengo eta Donostialdea erakunde sanitario integratuan gero 2018ra arte, normalizazio- eta itzulpen-lanak egiten, batean zein bestean. Egun, euskalduntze-teknikaria da HABEn. Horrez gain, euskal erretorikako artikulua batzuk idatzi ditu, eta Historiako zenbait liburu itzuli enkarguz.



Neus Figueras Casanovas

Ingeles Filologian lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean eta Bartzelonako HEOKo ingeleseko irakasle agregatua - Drassanes 1982tik. Irakaskuntzan, materialak egiten eta irakasleak prestatzen lagundu du, eta hizkuntza-arduraduna izan zen Bartzelonako HEOKo Autoikaskuntza Zentroan (Drassanes). Ebaluazioari buruzko artikulua argitaratu ditu, eta kongresu eta mintegietan parte hartu du, baita Europako proiektuetan ere (Speakeasy, Dialang).

Irakasleak



María Luz Castro Pérez

Servicio de Enseñanzas de Régimen Especial. Gobierno de Canarias.

Granadako Unibertsitatean ingeles filologian lizentziaduna. Kanarietako Hizkuntza Eskola Ofizialetako ingeles-irakaslea izan da 1996-1997 ikasturteetan, eta, hainbat ikasturtetan, irakaskuntza erdipresentzialaren modalitatea eman du. Era berean, Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasketa-burua izan zen 6 urtez, eta ikastetxe bereko ingeles-saileko burua 9 ikasturtez. Gaur egun, hizkuntza-arloko koordinatzailea da Kanarietako Gobernuko Hezkuntza, Unibertsitate, Kultura eta Kirol Saileko Lanbide Heziketako eta Helduen Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiko araubide bereziko irakaskuntzen zerbitzuan, 2016tik. Besteak beste, ahozko eta idatzizko testuen ekoizpenaren eta koprodukzioaren ebaluazio-eskalak idazten dituen taldea koordinatzen du, eta araubide bereziko hizkuntzen irakaskuntzari buruzko araudi autonomikoaren garapenean parte hartzen du.



Claudia Casu

EOI Cartagena

Italierako irakaslea Cartagenako HEOn, Ziurtapen Proba Berezien Elaborazio Batzordeko kidea Murtziarako haren sorreratik 2004an. Ordutik, ebaluazio-prozesuan zuzenean inplikaturik egon da, gai horri buruzko ponentziak, Murtziaren barruan zein kanpoan, emanez .



Armando de León-Sotelo Benítez


Ministerio de Educación yFP



Maiteder Erkiaga Laka

HAEE-IVAP (Eusko Jaurlaritzza)

Maiteder Erkiaga, lekeitiarra, Euskal Filologian lizentziaduna Deustuko Unibertsitatean (1992). Labayru Fundazioan jardun zuen, lehenengo euskara-irakasle (1990-1993), eta ondoren, 1993tik 2001ra bitartean, Administrazioko hizkuntza-eskakizunen azterketa-ereduak sortu, moldatu, aplikatu eta ebaluatzen –baita ebaluazio-irizpideak zehazten ere–, Labayruk IVAPekin zeukan lankidetzaz hitzarmenaren barnean. 2001. urteaz geroztik Eusko Jaurlaritzako langilea da eta IVAPen dihardu ebaluazio-teknikari Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio zerbitzuan. Administrazioko hizkuntza-eskakizunetako azterketen zenbait libururen argitalpenetan parte hartu du, baita desgaitasun intelektuala duten pertsonentzako lehenengo hizkuntza-eskakizuna egokitzearen inguruko bi artikulu idazten ere.



Iratxe Etxebarria Arizmendi

HAEE-IVAP (Eusko Jaurlaritzza)

Iratxe Etxebarria, Bilbon jaioa, Elikagaien Zientzian eta Teknologian lizentziaduna Euskal Herriko Unibertsitatean. Euskara irakaslea Alonsotegiko Gure Hizkuntza ikastolan (1989-1997), Bilboko Bilbo Zaharra euskaltegian (1997-2006) eta Labayru Fundazioan (2004). Itzultzailea Gordexolako Euskaingintza enpresan (2005-2010). IVAPeko teknikaria Hizkuntza Prestakuntza eta Normalizazio Zerbitzuko Prestakuntza Arloan (2006-2013) eta Ebaluazio Arloan (2014-2019). Hizkuntza Normalkuntzako teknikaria Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailean (2013-2014). Trebakuntzaren gaineko monografiko bat eta artikulu bat idatzi du, eta artikulu bi desgaitasun intelektualaren inguruan.



Glòria Ferrer Viader

Filologia anglo germanikoan lizentziaduna da Bartzelonako Unibertsitate Autonomoan eta Ingelesa Atzerriko Hizkuntza gisa irakasteko masterra du Vigoko Unibertsitatean. Ingeles irakaslea da Universitat de Gironan eta 25 urte baino gehiagoko esperientzia du ingeles irakasle gisa unibertsitate mailan. 2014tik, Servei de Llengües Modernes - UdG ingeles unitateko arduraduna da. Ebaluazioaren arloan, esperientzia handia du hizkuntzak egiaztatze azterketak egiten. Cluc azterketen talde arduradunaren parte izan zen – Kataluniako Unibertsitateetako Hizkuntzen Ziurtagiria, B2 mailakoa (2014-17). Gaur egun, B1, B2 eta C1 mailetak ingeleseko CertAcles azterketak diseinatu, egin eta berrikusten dituen taldeko kidea da (azken bi horiek Bartzelonako Unibertsitatearekin batera).



Javier Fruns Giménez

Instituto Cervantes


Javier Fruns letretan doktorea da Massachusettsko Unibertsitatean, eta Filologia Hispanikoan lizentziaduna Madrilgo Unibertsitate Autonomoan. Gaur egun, Cervantes Institutuko Hizkuntza Ziurtapeneko Unitateko arduraduna da, eta, bertan, atzerriko hizkuntza gisa gaztelania ikasteko azterketen koordinazio akademikoaz arduratzen da. UIMPko hizkuntzen irakaskuntzako masterrean eta bigarren hizkuntza gisa gaztelania irakasteko UNEDeko aditu ikastaroan ere eskolak ematen ditu. Halaber, hizkuntzen ebaluazioari buruzko tailerrak ematen ditu nazio-mailako eta nazioarteko kongresuetan (GIELE, ALTE, ELEko jardunaldiak, etab.), eta hainbat autonomia-erkidegotako, Cervantes zentroetako eta Espainia osoko unibertsitateetako hizkuntza-eskola ofizialetarako ikastaroak ere eman ditu. Aurretik, AVE eta ¡Hola, amigos lineako ikastaroen prestaketan parte hartu zuen. Gainera, espainierako irakasle izan zen Frantzia, Indian, AEBetan eta Espainian. Eskuliburu eta material didaktikoen egilea ere bada.



Mike Gates

Universitat Autònoma de Barcelona

Mike Gates espainieran lizentziaduna da Londresko Unibertsitateko King 's Collegen. Helduei ingelesa irakasteko Cambridge Delta eta Leicesterreko Unibertsitateko Hizkuntzalaritza Aplikatuko eta TESOLeko masterra ditu. International House Barcelonan 10 urtez lan egin zuen, 1996an UABko Hizkuntzen Zerbitzuan ingeleseko irakasle izan aurretik. 2009tik Ebaluazio eta Ziurtapen Unitateko kide ere bada.



Sofia Gonzalez Vázquez

Universidad de Deusto

Diplomada en Profesorado de Educación General Básica (Especialidad Ciencias) por Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate Eskola (BAM), Licenciada en Filosofía y Letras (Filología Vasca) por la Universidad de Deusto, Máster en Enseñanza de Español como Lengua Extranjera en IL3 Instituto de Formación Continua y Máster en Recerca en Didáctica de la Lengua i la Literatura por la Universidad de Barcelona. Doctoranda en el programa de Doctorado en Equidad e Innovación en Educación de la Universidad de Cantabria. Examinadora del nivel C1 de euskera (HABE). Los cursos, talleres y jornadas en las que ha participado, así como sus publicaciones, tratan sobre cuestiones didácticas y de innovación educativa, en concreto, sobre la didáctica de la lengua y la literatura. Actualmente imparte las asignaturas Euskal Hizkuntza I y Euskal Hizkuntza II en los grados de Lenguas Modernas y Lenguas Modernas y Gestión y cursos de español a alumnos de movilidad en la Universidad de Deusto.



Marie Jeaffreson Jeaffreson

EOI Donostia

Frantseseko irakaslea naiz Euskal Herriko Hizkuntza Eskola Ofizialen sarean 2003az geroztik, eta eskarmentua dut maila guztiak ematen. Eskola horietako Ebaluazio Batzordeko koordinatzaile nagusia izan naiz 2010etik 2015ra arte, eta maila guztietako eta hizkuntza guztietako azterketetarako materiala sortzeaz

arduratzen diren gure eskoletako talde guztien lana koordinatu dut. Eginkizun hori betetzean, gure ikasleen ebaluazioari buruzko erabakiak hartzeko prozesuan eta probak idazteko jarraibideak egiteko prozesuan parte hartu dut. Halaber, 2009 eta 2013 bitartean, maila baxuetan, frantseseko probak idazteko taldeko koordinatzaile eta erredaktore izan naiz, eta frantseseko probak idazteko taldeko erredaktore ere izan naiz maila altuetarako, 2016tik gaur egun arte.



Juan José Lago Leis

Xunta de Galicia. Consellería de Educación

Juan J. Lago Leisek hainbat ikastaro egin ditu didaktikari, hizkuntzen ebaluazioari eta hizkuntza-azterketen idazketari buruz (Lancaster, Edinburgo eta Kent unibertsitateetan Erresuma Batuan, UIMPk eta Cervantes institutuak antolatutako udako ikastaroetan ...). Santiago de Compostelako HEOKo ingeles-irakaslea da 2008az geroztik Galiziako EEOII ziurtagiri-proben koordinatzaile nagusia, eta, gaur egun, Galiziako Xuntako Hezkuntza Kontseilaritzako Araubide Bereziko Irakaskuntzen Zerbitzuak koordinatzen du B2, C1 eta C2 mailetako ziurtapen-azterketak baliozkotzeko batzordean. Hainbat tailer eta ikastaro eman ditu testuen hautaketari eta itemak idazteari buruz, atazen diseinuari buruz eta Europako Erreferentzia Markoan aipatutako mailen estandarizazioari buruz. Berriki, hizkuntza-bitartekaritzari buruzko prestakuntza jaso du Atenasko Unibertsitate Kapodistriakoan.



Natalia Judith Laso Martín

Natalia J. Laso Serra Hunterreko irakaslea da ingeles hizkuntzalaritzan, Bartzelonako Unibertsitatean. Bartzelonako Unibertsitateko Ingeles Filologiako doktoretza du, eta GRELIC-Lexikologia eta Hizkuntza Corpuseko Ikerketa Taldeko kide ere bada. Bere ikerketa bi arlo nagusitan oinarritzen da: a) idazketa zientifikoa eta NNEseko (Non-Native English Speakers) idazleek beren ikerketa ingelesez idaztean dituzten erroka nagusiak; eta b) hizkuntzalaritza gelan corpusaren erabilera. Biomedical English bolumena koeditatu du: corpusean oinarritutako ikuspegia (Isabel Verdaguer, Natalia J. Laso eta Danica Salazarrek zuzendua), John Benjamins Publishing-ek argitaratua. Bartzelonako Unibertsitatean Hizkuntza Modernoen Eskolarako akreditazio-azterketak idazten ere aritu da 2014tik.



Olga López López

Xunta de Galicia

Olga López López 2017ko irailetik aholkulari teknikoa da Xuntako Turismoko Consellería-ren hizkuntza politikako idazkaritzan, galizieraren ebaluaziorako eta prestakuntzarako. Lehen, bigarren hezkuntzako galizieraren irakasle titular gisa jardun zuen Valan (Pontevedran). Lizentziaduna da Filologia Erromanikoan (frantsesa) eta Hizkuntza hizkuntza hispanikoetan (galiziera eta portugesa).



Jose Francisco Lukas Mujika

Universidad del País Vasco

“Ebaluazioa Hezkuntzan” Unibertsitateko Irakasle Titularra. Euskal Herriko Unibertsitatea. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea. Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak Saila. Hezkuntzaren neurketan eta ebaluazioan aditua. Batez ere programa eta ikastetxeen ebaluazioarekin erlazionatutako gaietan eta baita neurgailuen eraikuntzan ere. Pedagogian Doktorea, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan Lizentziatua (Pedagogia atalean) eta Maisu-Maistra Ikasketetan Diplomaturua. Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Zientzien Institutuko Zuzendari Atxikia (1997-2000). Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak Saileko Zuzendaria (2003-2009). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren Irakas-Sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundearen (ISEI-IVEI) Batzorde Zientifikoko Kidea (2002-2014). 5 doktorego tesiren zuzendaria. 50 ikerketa proiektu edo kontratuetan aritu da, horietatik 14tan ikertzaile nagusi gisa. Egilekide argitalpen ugarritan.



María José Navas Ara

UNED



Diana Pastoriza Espasandín

Centro Autonómico de Formación e Innovación

Hizkuntza Eskola Ofizialeko ingeleseko irakaslea (2007). Lizentziaturako Aparteko Saria (2002). Masterra: bigarren hizkuntzetako hiztegia ikasteko hizkuntzalaritza eta ikertzailea University of Kansasen, AEB (2002-2004). 2015etik Galiziako Prestakuntza eta Berrikuntzarako Zentro Autonomikoan aholkulari gisa dihardu.



Cristina Perez-Guillot

Doctora en Filología por la Universitat Politècnica de València. Profesora Titular en la Facultad de Administración de Empresas de la Universitat Politècnica de València. Directora del Centro de Lenguas de la UPV y Presidenta de ACLES, (Asociación Española de Centros de Lenguas de Enseñanza Superior). Áreas de investigación: Evaluación de Inglés como Segunda Lengua, Desarrollo de Herramientas de Evaluación; Certificación de Competencia Lingüística: desarrollo, creación y validación de ítems, Neuroestimulación Lingüística.



Iñaki Pikabea Torrano


Euskal Herriko Unibertsitatea - Universidad del País Vasco

Psikologian eta Pedagogian lizentziatua, eta Pedagogian doktorea EHU/UPVn. EHUko irakasle da 1989tik. Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultateko irakasle dihardu. Bere ikerkuntza eremuak honakoak dira: eleaniztasuna, hizkuntzen irakaskuntza-ikaskuntza helduengan, hizkuntzaren pedagogia, hizkuntzak irakasteko metodoak, ikas-estiloak, ikas-estrategiak eta zeharkako gaitasunak unibertsitatean. Zenbait ikerketa-taldetan hartu du parte, horietako batzuetan zuzendari nagusia izan delarik. Hainbat gradu eta masterretako irakasle da. Aldi berean, maisu-maistren eta hezitzaileen prestakuntzarako saiotan dihardu. Zenbait aldizkari zientifikotako ebaluatzaile lanak egiten eta hainbat kongresutako batzorde zientifikoko kide izana da. Aldizkarietako hemezortzi artikuluko zientifikoko idatziak. Lau liburu idatzi ditu bakarrik eta talde-lanean beste hirutan ere parte hartu du. Komunikazio eta ponentzia anitz aurkeztu ditu hizkuntzen eremuko nazio eta nazioarteko kongresutan.



Cristina Rodriguez Rodriguez

Cristina Rodriguezek Lancaster Unibertsitateko Masterra du Hizkuntza Azterketetan, eta esperientzia handia ziurtatze-ebaluazioan. Ingeleseko koordinatzailea da Galiziako hizkuntza-eskola ofizialetako B1, B2 eta C1 mailetakoko egiaztapen-azterketen Balioztapen Batzordean. Galizian bertan zein beste autonomia erkidego batzuetan hizkuntzen azterketei buruzko tailer ugari eman ditu.



Antonio Romero Rodríguez

Escuela Oficial de Idiomas de Cádiz

Antonio Romero ingeleseko irakaslea da, eta Cadizko HEOko zuzendaria. 2016az geroztik, Andaluziako ziurtapen-proba terminal espezifikoen ingeles-koordinatzailea da, eta Andaluziako EEOII curriculum berriaren erredakzio-batzordeko kide izan da. Hainbat hitzaldi eman ditu ziurtapen-probak egiteari buruz. Claudia Casurekin batera, Erasmus+ partzuergo nazionalako kide da, eta titulu hau du: "Bitartekotza ebaluatzea HEOIn: gizarteratzeko komunikazio-modalitate bat".



Dan Iulian Toader

Dan Toader (Salamancako Unibertsitatea) Ingeleseko irakaslea da, eta Salamancako Unibertsitateko Hizkuntza Zerbitzu Nagusian hizkuntza-ziurtapeneko proben garatzailea 2010. urtetik. Ingeles filologian lizentziaduna da, Ingeles Ikasketa Aurreratuetan masterra du (2008) eta Salamancako Unibertsitatean ingeles ikasketetan doktoretza egin du. Berariazko prestakuntza jaso du hizkuntzen ebaluazioan, bere espezializazio-eremuan. Salamancako Unibertsitateko Hizkuntza Zerbitzuko ebaluazio- eta ziurtapen-taldea koordinatzen du 2015etik. 2018az geroztik, Egiaztatze Batzordeko kidea da, eta ACLES 04 guneko arduraduna.



Julia Zabala Delgado

Universitat Politècnica de València

Julia Zabala Delgado doktorea, Filologian lizentziaduna. Valentziako Unibertsitatean. Itzulpengintza eta Interpretazioan diplomaduna, Valentziako Unibertsitatean. Valentziako Unibertsitate Politeknikoa Hizkuntzan eta Teknologian doktorea. Hizkuntza-ebaluazioko masterra, Lancasterreko Unibertsitatean. Hizkuntza-aholkularia, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Hizkuntzen Zentroan eta Hizkuntza-gaitasuneko probak garatzeko taldeko koordinatzailea, EHUKo Hizkuntzen Zentroan. Goi Mailako Irakaskuntzako Hizkuntzen Ikastetxeen Elkarteko (ACLES) egiaztatzaile aditua. Hizkuntza-ebaluazioari, proben garapenari, estandarren ezartzeari eta zuzentzaileen prestakuntzari buruzko ikastaroak ematen ditu. Ikerketa-arloak: hizkuntza-ebaluazioa, ebaluazio-tresnen diseinua, ebaluatzaileen prestakuntza, prestakuntza-programak garatzea.



Itxasne Sagarzazu Olaizola

HABE

Soziologian lizentziatua (UAB, 2005), Soziologian Doktorea (UAB, 2014), BBLH Irakaskuntzako Irakasleen prestakuntza Masterra (2017): integrazio soziala, kirola, generoa eta estereotipoak, hizkuntza-aniztasuna, kulturartekotasuna eta hezkuntza dira bere ikerlerroak. 2005etik 2014ra, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko "Centre d'Estudis Olímpics" zentroko ikerketa-taldeko kide izan da, bertan, bazterketa soziala pairatu dezaketen gizataldeen integrazio sozialean kirolak izan dezakeen papera ikertuz. 2009an eta 2011an "Nazioarteko Akademia Olinpikoan" egindako egonaldiaren ondorioz, hezkuntzaren munduan murgildu zen hezkuntza olinpikoari esker, eta, orduz geroztik, hainbat zereginetan ibili da: soziologian, irakaskuntzan, ikerketan, aholkularitzan, itzulpengintzan... Horrez gain, herritarren partaidetzan eta komunikazio sozialeko proiektuetan ere ibili da.



Óscar Soler Canela

Kairoko Cervantes Institutuko irakaslea. Hizkuntzen Irakaskuntzako Masterra (Hizkuntzalaritza Aplikatuako espezialitate), Lancasterreko Unibertsitatean. Bertan, hizkuntzen ebaluazioan espezializatu zen, eta haren memoria-gaia Europako Erreferentzia Markoarekin lotutako hizkuntza-azterketak izan ziren. Hainbat ziurtapen- eta kalitate-proiektutan lan egin du Cervantes Institutuan Ziurtapen Unitatean, eta ebaluazioari buruzko mintegiak eta tailerrak ere eman ditu hainbat herrialdetako erakundeetan. Era berean, ebaluazioari buruzko artikulatuak argitaratu ditu kongresu eta aldizkarietako aktetan, eta nazioarteko hainbat erakunderentzat azterketa-materialen zuzentzaile gisa jardun du. Hizkuntzen Ebaluaziorako Europako Elkarteko (EALTA) eta Hizkuntzen Ebaluaziorako Nazioarteko Elkarteko (ILTA) kidea da. Gaur egun, "Ebaluazioa Hizkuntzen irakaskuntzan" irakasgaia ematen du Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasle masterrean (UNIBA-Bartzelonako Unibertsitatea).



Inés Soria

Filologia Hispanikoan lizentziaduna Madrileko Unibertsitate Autonomoan eta Hizkuntzen Irakaskuntzako masterra Nebrija Unibertsitatean; Hezkuntzan eta Komunikazioan unibertsitate espezialista UNEDen. Gaztelania irakatsi ditu Espainian, Jamaikan eta Errumanian. IKTen aplikazioan espezializatu da

gaztelaniaren didaktikan, baita irakasleen prestakuntzan eta egiaztagintzan. Cervantes institutuko kide da, eta material didaktikoak sortu ditu (Agencia ELE, A tu ritmo). Gaur egin Cervantes Institutuko egiaztagintzako ataleko burua da.

Matrikula prezioak

AZAROAREN 15	2019-11-15 ARTE
Orokorra	30,00 EUR
Hizlari gonbidatua	0 EUR

AZAROAREN 16	2019-11-15 ARTE
Orokorra	50,00 EUR
Hizlari gonbidatua	0 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa